

HARREMANAK

Gure proiektuan, hainbat harreman mota ezartzea nahi dugu bezeroekin; hala nola, automatizatua eta pertsonala, besteak beste.

Alde batetik, bezeroak proiektuaren ordezkariarekin zuzenean harremanetan jarri ahalko da. Harreman pertsonala ezartzea gustatuko litzaiguke 3 arrazoiengatik: bezeroengana hurbiltzeko, gure proiektuaren nondik norakoak hobeto azaldu ahal izateko eta bezeroek izan ditzaketen edozein zalantza argitzeko. Hori, hitzaldi bidez edota lokal bertan egin ahalko da (lokalean arduradun batzuk egongo baitira hori zaintzen).

Bestalde, teknologia bitartez ere komunikatuko gara, hau da, automatizatutako zerbitzu bitartez, horrela, gure proiektua zabaldu eta informazio ezberdina azaltzeko. Horretarako, sare sozial eta web-gune ezberdinak erabiliko ditugu (adibidez, facebook, instagram, twitter...). Horiekin, informazioa eskaintzeaz gain, donazioak egiteko aukera ere egongo da, proiektua finantzatzeko borondatezko dirua supermerkatu edo beste edozein dendetan uzteaz gain, online bidez egiteko aukera ere badutelako herritarrek.

ZaLaBi